

## "La Salle"ko Anaiak 50 urte

*Deia*, 1984-11-19.

La Salle-ko Anaien hazia XVII.garrengo gizaldian Frantzian erein zen, gehien bat eskolatu gabe zeuden haurrei ikasbide bat eskeintzeko asmoz; San Juan Bautista De La Salle izango zenak ez zuen orain dela hiru mende, hazi horrek emandako fruituak hainbeste hedatuko zirenik uste izango, baina Europa osoan ugaltzen joan zen eta orain berrogeitamar urte Andoainera iritsi zitzaigun.

Eta guretzat mundu berri baten sorrera bilakatu ziren.

Andoainen hiru eskola unitario genituen: bat, udalak jarria, bertako seme gazte bat, Inazio Tolosa, maisu zela eta beste biak, Espainiako gobernuak izendatu eta bidalitako maisu erdaldunek zuzenduak.

Ez uste, hala ere, herriko seme euskaldunak euskaraz irakasten, zigunik; ezin zuen, nahi izanda ere; batetik asignaturak euskaraz erakusteko gaitu ez zutelako, eta, bestetik, Madrilgo gobernuak noizbehinka bidaltzen zizkion inspektoreak erdaraz nola gabiltzen galderak egitera etortzen zirelako. Eta neure lekukotasuna piska bat zehazteko esan dezadan orduko egoeran, baserritik herriko eskoletara jaisten zirenak ez zutela erdaraz tutik egiten; eta makila maiz dantzatzen zen, garai hartako eskola oraindik: "La letra con la sangre entra"-ren filosofiapean bait zegoen.

Gaur, euskalduntze kanpaina salatzen duten horiek isil arazteko ez dugu arrazoin bila urrun joan behar.

Neuk ez dut esango La Salleko anaiek Andoainen mailakatua zen eskola aurreratua hartan euskaraz erakutsi zigutenik, horiek ere lege beraren mende bai zeuden; baina hiru irakasleak bertongoak ziren, euskal abestiak erakusten zizkiguten, geure harteko mintzairan libreago sentitzen ginen, eta askotan euskaraz hitzegiten zuten. Bestetik, kaskarrekoen bat eror zitekeen zerutik, baina zigorrerako gorostiaz egindako makilik ez genuen gehiago ikusi, eta zigorraren filosofiaren orde, eragingarriago ziren kolorezko baleak, erregali-sariak, autobusezko edo oinezko ibilaldiak, futbol taldeak, hileroko nota idatziak, eta ikasturte buruko diplomak, osatzen zuten filosofia berriaz motibatu gintuzten. Eskola giroko mundu osoa aldatu zitzaigun.

Joan den igandean, lehen klase haietan ikasle izan eta oraindik bizitzeko zoria dugunok, gaur, berrogeitamar urte gero, hor izan ginen gaur arteko beste ikasleekin efemeridesa ospatzeko eratu ziren jaietan.

Eta gaurko Anaiak eskertuz, geuk, zaharrenok, 1933an erakunde onuragarri hau sortzen lagundu zuen gure erretore zintzo izan zen Don Joaquin Bermejo eta maisugintzan argia zen hirukotearen burua, Anaia Jose Maria Itziar, aipa nahi nituzke, hau bereziki, noski, hainbeste arrazoiengatik, baina batez ere geure herriko eskola mota honen oinarria jarri, sendotu, eta gaurko 1300 ikaslekoa, Estatuan Handiena, izateko bidean jarri zuelako.

Bizi balitz, ez ninduke horrelakorik esaten utziko, hain zen apala.

Eta ahaztu gabe, Don Juan Legarra Etxebesteren aipamen berezia egin nahi dut, eraiki zen Fundaziorako behar ziren diruak honek utzi bai zizkigun.

Andoaingo herriak ez lituzke aipatutako izen hauek inoiz ahaztu behar.